

**INTXAURTXUETAZ 26, 2. ESK. HELBIDEKO UDAL ETXEBIZITZA ERRENTAN EMATEKO ESLEIPENA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA JURIDIKOEN ETA EKONOMIKOEN AGIRIA**

**1.- HELBURUA:**

Baldintza agiri honen helburua da ondoren deskribatzen den udal etxebizitza errentan esleitzeko prozedura arautuko duten baldintzak arautzea.

ESKORIATZAKO INTXAURTXUETA AUZOKO 26 ZENBAKIDUN ESKAPEKO BIGARREN SOLAIRUKO ESKUINEKO ETXEBIZITZA

Gutxi gorabehera 79,90 m2 ko azalera erabilgarria du.

Honako ERANSKINAK (BEREIZTU EZIN DIRENAK) eman zaizkio:

- A) 15 ZENBAKIA duen GARAJEA.
- B) 11 ZENBAKIDUN TRASTELEKUA.

**2.-ARAUDIA:**

Prestaketa eta esleipena:

- a) Baldintza agiri honetan datozen baldintzak.
- b) Tokiko Korporazioen Ondasun Erregelamendua.
- c) Kontratazio administratiboari dagokion araudia.
- d) Etxebizitza sozial edo erregimen berezikoaren araubidea: 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa, eta dekretu hori garatzeko xedapenak.

Kontratua:

- a) Plegu honetan datozen klausulak.
- b) Indarrean dagoen Hiri Errentamenduen Legea (HEL).  
39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa, eta dekretu hori garatzeko xedapenak.

Errentamendu kontratu honetan zehazki hitzartu ez denari buruz aplikatu beharrekoa, Babes Ofizialeko Etxebizitzaren estatuko nahiz erkidegoko Legedia izango da, Azaroaren 24ko 29/1994 Hiri-errentamenduen Legea eta legedi komuna, babes ofizialeko etxebizitzaren legediaren osagarri.

**3.-IZAERA JURIDIKOA.**

Esleitutako errenta kontratua kontratu pribatutzat joko da.

#### 4.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuak URTE BETEKO (1) iraupena izango du. Hitzartutako epemuga iritsitakoan, eta Hiri-errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 9. artikuluan ezarritakoaren arabera ( Ekainaren 4ko 4/2013 Legeak aldatutakoa), kontratua urtez urte luzatuko da errentamenduak HIRU (3) URTE egin arte, baldin eta errentariak berrizatzeko asmorik ez duela adierazten ez badio errentatzaileari kontratua edo horren luzapenetako bat amaitu baino gutxienez hogeita hamar egun lehenago.

#### 5.- UKO EGITEA

Maizterrak kontratuari uko egin diezaioke indarraldiko edozein unetan, betiere, gutxienez bi hilabete aurretik dagokion aurreabisua egiten badio alokatzaileari.

#### 6.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa honela ezarriko da:

Hileko gehieneko errenta: Maizterraren hileko diru-sarrerren % 30a ondorengo irizpideen arabera haztatuta:

Diru sarrerren haztapena ondorengo irizpideen arabera egingo da:

a) Haztatu beharreko elementuak.

- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aitortpeneko zerga-oinarria, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera zuzenduta.

- Etxebizitzan bere egoitza finkatuko duten bizikidetzaren unitateko kide kopurua.

Baztertuta gelditzen da adiskidetasun edo komenientzia arrazoiengatik bizikidetzaren

- Diru sarrerak, gutxienez horien %20a, sortzen dituzten bizikidetzaren unitateko kide kopurua.

b) Aurreko atalean aipatutako diru sarrerren haztapena ondorengo formularen arabera egingo da:

$DH = DK \times N \times A$ , honako hauek izanik:

DH: diru sarrera haztatuen zenbatekoa.

DK: Diru-sarrera konputagarriak, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

N: haztapan-koefizientea, bizikidetzaren unitateko kide-kopuruaren arabera.

A: haztapan-koefizientea, diru sarrerren % 20 gutxienez irabazten duten bizikidetzaren unitateko kideen kopuruaren arabera.

c) N eta A haztapan-koefizienteak, urteko diru-sarrera haztatuak zehazteko aplikatu beharrekoak, honako hauek izango dira:

N

1 edo 1,00

2 kide: 0,95

3 kide: 0,90

4 kide: 0,85

5 kide: 0,75

6 kide: 0,65

7 kide: 0,55  
7tik gora: 0,50

A

1 hartzaile: 1,00  
2 hartzaile: 0,90  
3 hartzaile edo gehiago: 0,85

Errenta hilerro eta modu aurreratuan ordaindu beharko da hil bakoitzeko lehen zazpi egunen barruan.

Errentaria behartuta dago kontu korrante edo banku-libreta bat izatera ordainketa-helbide bezala, hileko kuotak bertatik kobratzeko. Kontu edo libreta zenbakia jakinarazi beharko dio alokatzaileari.

#### 7.- ERRENTAREN BERRIKUSPENA

Babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriari buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan eta babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak erabakitzeari buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2010eko azaroaren 3ko Aginduan ezarritakoaren arabera, aurreko klausulan jarritako errenta urtero eguneratuko da kontratua amaitzean. Eguneraketa egiteko Kontsumorako Prezioen urte batetik besterako azken indizeak Euskadin izandako portzentajea erabiliko da.

#### 8.- BERMEA

Kontratuaren esleipendunak hilabeteko errentaren besteko diru kopurua jarri beharko du BERME bezala udal diruzaintzan, horrela ezarrita baitago Hiri Errentamenduen Legeko 36. artikuluan. Horretarako 15 lanegun izango ditu kontratuaren esleipena jakinarazten zaionetik kontatzen hasita.

Berme hori honako hauei erantzuteko da: kontratuaren betebeharrari, eragindako kalte eta galerengatik kalte-ordainei, eta kontratu honek ezarritako zigorrei.

Berme horren helburua da maizterrak errentamenduaren betebeharrak beteko dituela bermatzea, eta errentamendua amaitutakoan itzuliko zaio, betiere, esleipendunak egunean baldin baditu errenten eta bere gain hartutako gainontzeko kontzeptuen ordainketa eta etxebizitza errentan eman zen eguneko kontserbazio eta erabilera egoeran edo antzekoan baldin badago.

#### 9.- ASEGURUA

Maizterra da etxearen erabileraren edo gozamenaren ondorioz sor daitezkeen gertaera edo ezbeharren erantzule zuzena zibil zein zigor arloan. Horretarako, etxebizitzak erantzukizun zibileko aseguruia izan beharko du eta baita sute eta hondamendi arriskuaren aurkakoa, urak eta elektrizitateak sortutako kalteen aurkakoa eta instalazioetatik izandako isuri edo ihesen aurkakoa ere, gutxienez 43.449 euroko kapitalarengatik. Aseguruaren onuradun Eskoriatzako Udala izendatu beharko du.

Polizan jarri beharko du aseguru-etxeak ezingo duela kontratatutako aseguru baliogabetu aseguru ez ordaintzearen, aurrez egoera hori alokatzaileari jakinarazi gabe.

#### 10.- GASTU OROKORRAK ETA ZERBITZU INDIBIDUALAK

1.- Maizterra behartuta dago zuzenean ordaintzera honako hauek:

a) Errentan hartutako etxebizitzako argindar, gas, telefono eta ur zerbitzuak edo hornidurak kontratatzea eta ordaintzea.

b) Ur, estolderia eta zabor bilketa gastuak eta Ondasun Higiezin gaineko Zerga (OHZ), nahiz eta ordainagiriak jabearen izenean izan. Derrigorrezkoa da gastu horien ordainketa helbideratzea.

2.- Gastu orokorrak, hala nola, igogailuaren mantentze-lanak, administratzaile-zerbitzua, instalazio orokorren azterketa, argiteria eta elementu komunak, maizterrak ordainduko dizkio Jabekideei.

Ordainketa bere gain hartu edo maizterrari dagokion edozein kopuru ez ordaintzeak errentamendu kontratu hau erabat amaitzea ekar dezake Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 27.2 artikulua araber.

#### 11.- MAIZTERRAREN BETEBEHARRAK

1.- Giltzak eman eta HIRU HILABETEKO EPEAN etxebizitzan bizi izaten jartzea, eta bizikidetz-unitateko kide guztiak bertan bizi direla agertzeko Udaleko Erroldan Alta ematea.

Eskaeran adierazitako bizikidetz-unitatetik kanpo beste pertsona batzuk etxebizitza horretan bizitzea gura izanez gero, errentaria behartuta dago horretarako baimena idatziz eskatzera Udalari. Eskaerarekin batera beharrezko dokumentuak aurkeztu beharko ditu kide berriarekin etxebizitza eskuratzeko baldintzak betetzen jarraitzen diren berriz baloratu ahal izateko eta errenta egokitu ahal izateko. Eskatutako baimena eman gero, etxebizitzako kide berria hilabeteren barruan erroldatu beharko da.

2.- Etxebizitza ohiko bizileku iraunkorra izatea. Horrekin batera, eta edozein titulurengatik, ezin izango da beste etxebizitzarik erabili. Betebehar hori ez betetzeak, etxebizitza normalean okupatu gabe edukiz edo baimendu gabeko beste xede batzuetarako erabiliz, egindako arau-hausteari dagozkion zigorrak ekarriko ditu ezinbestean.

3.- Jabetza horizontaleko erregimena arautzeko ezarritako arauak betetzea eta uneoro zarata-transmisioari, usainak sortzeari eta auzokoekiko harremanenetan eragina izan ditzaketen gainerakoetan indarrean dauden estatuko, erkidegoko eta udaleko arauak ere betetzea.

4.- Etxebizitza eta inguruak ondo eta garbi kontserbatzea, egunero erabiltzeak sortutako higadurak edo berak edo berarekin bizi direnek etxebizitzan sortutako kalteek eskatzen dituzten konponketak berak eta bere kontura eginez.

5.- Errentariak berariaz adierazten du udal ordenantzetan jasotakoa bete eta errespetatuko duela. Debekatuta dago edozein motako errotulu edo iragarki jartzea fatxadan edo eskapean.

Era berean, maizterrak ezingo du etxebizitzan, trastelekuan edo garajeen honelakorik egin:

- Industria, komertzioa edo zerbitzuak jartzea edota horretan aritzea.
- Material sukoi, ezeroso, osasungaitz, kaltegarri edo arriskutsuak eduki edo erabiltzea.
- Patiora gauzak botatzea.
- Elkarbizitzarako eta etxebizitzaren kontserbaziorako kaltegarriak izan daitezkeen animaliak edukitzea.
- Antena parabolikorik edo telebista eta irrati seinale hartzaile indibidualik jarri eraikinaren fatxadan edo teilatuan errentatzailearen idatzizko baimenik gabe. Errentatzaileak, egoki iritzi gero, seinale hartzaile kolektiboak jartzeko baimena eman dezake, eta nahi izanez gero, berak gura dituen baldintzak jarri.
- Arropak edo beste gauzaren batzuk zintzilikatzea leiho eta balkoietan, horretarako bereziki erabiltzeko diren lekuetan izan ezik.
- Aire girotua jartzea errentatzailearen idatzizko baimenik gabe.
- Daukan garaje-plazan ibilgailu bat baino gehiago aparkatu edo bestelako gauzak utzi, hauek barne: altzariak, ordezeko piezak, pieza mekanikoak, olioak, hozkailuak eta abar.

Betebehar horiek betetzen ez badira, errentatzaileak eskubidea izango du errentamendu kontratuaren amaiera eragiteko Kode Zibilaren 1.124 artikuluan ezarritakoaren arabera.

## 12.-. OBRAK, MANTENTZE-LANAK ETA KONPONKETAK

1.- Errentan hartutako finka aldatu, hobetu edo erreformatzeko obrak egiteko, aldeztu aurretik Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako lurralde ordezkariaren baimena izan beharko da. Obrak ezingo dira ordenantza teknikoaren eta eraikuntza arauen kontrakoak izan. Aurrez lortu beharreko baimenetik kanpo gelditzen dira kontratu honen helburua den etxebizitzaren kontserbazio eta mantentze-lanen obrak.

2.- Errentatzaileari edo berak agindutakoei etxebizitzara libre sartzen utzi beharko zaie beharrezko kontrolak egin eta jabetza funtzioak gauzatzeko.

3.- Errentatzaileak aitortzen du adierazitako finka kontserbazio egoera onean eta bizitzeko baldintza onetan eman zaiola, eta behartuta dagoela horrela mantentzera errentamendua amaitu arte, bere kontura izanik tratatutako hodi eta hustubideak libratzea eta konpontzea, eta entxufeak, pertsianak, sanitarioak, iturriak, giltzak eta bestelako balbula, pintura eta dekorazioa, leihoak, ateak, eta abar apurtutakoan edo matxuratutakoan konpontzea.

Errentamendu kontratua amaituta, hartutako egoeran itzuli beharko da etxebizitza altzari eta tresnarik gabe, aurreko paragrafoan aipatutako baimendutako obrak izan ezik; era berean, jabearentzat izango dira bereizezin izaera duten hobekuntzak eta etxebizitza itzultzerakoan maizterrak eraman gabe lagatako altzariak, kontzeptu horiengatik inolako kopururik ordaintzeko beharrik gabe

4.- Emandako elementuen mantentze-lanak eta konponketak errentariaren kontura izango dira, horien berme epean izan ezik. Emandako elementuak zahartuta gelditu direlako aldatu behar baldin badira, errentatzailearen kontura izango da, errentariak gaizki erabiltzeagatik hondatutakoan izan ezik.

#### 13.- DOKUMENTUAK ETA DATUAK AURKEZTEA.

Errentariak, hala badagokio, seigarren baldintza aplikatzeari eta hamazazpigarren baldintzan ezarritako betebeharrak betetzeari begira, diru sarreren maila egiaztatzeko eta eguneratzeko beharrezko dokumentu eta datu guztiak aurkeztu beharko ditu Udalean.

Aurrez esandakoaren kaltetan gabe, errentariak baimena ematen dio errentatzaileari organismo eta erakunde eskudunetatik dokumentu horiek lortzeko.

#### 14.- DATUAK TRATATZEKO BAIMENA

Datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoari jarraiki, esku hartzen duten pertsona fisikoen datu pertsonalak egiazkoak direla adierazten du errentariak, eta berariazko baimena ematen du datu horiek automatikoki tratatzeko

Informazio hori beste erakunde batzuei eman ahal izango zaie errentamendu kontratuaren indarraldian egin beharreko eragiketak errazteko.

Datu pertsonal horiek eskuratzeko eta zuzentzeko, eta datuen erabilera-baimena indargabetzeko eskubidea erabili ahal izango du noiznahi errentariak. Horretarako, idatziz jakinarazi beharko dio Udalari.

#### 15.- KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK

Kontratuak sortutako betebeharrak ez baditu betetzen aldeetako batek, besteak eskubidea izango du betebeharra betetzea eskatzeko edo kontratuaren amaiera eragiteko Kode Zibilaren 1.124 artikuluan ezarritakoaren arabera, baldin eta bere betebeharrak bete baldin baditu.

Errentatzaileak kontratua amaitu ahal izango du honako arrazoiengatik:

1. Errentariak errenta edo bere gain hartutako edo berari dagokion edozein kopuru ez ordaintzeagatik.
2. Fidantza edo horren eguneraketa ez ordaintzea.
3. Baldintza hauetan ezarritako errentariaren betebeharrak ez betetzea, baita zati bat izanda ere.

4. Etxabea (garajea eta trastelekua barne) osorik edo horren zati bat lagatzeagatik edo azpierreteagatik. Negozio juridiko hori berariaz debekatzen du babes ofizialeko etxebizitzaren legediak.

5. 13. baldintzan aipatutako dokumentuak aurkezteko betebeharra ez betetzea.

6. Errentariak bere gain hartutako beste edozein betebehara ez betetzea.

7. Errentariak Hiri Errentamentuen azaroaren 24ko 29/1994 Legean ezarritako edozein arazoiengatik amaitu ahal izango du kontratua.

#### 16.- KONTRATUA FORMALIZATZEKO GASTUAK

Kontratu hau formalizatzearen ondorioz sortutako gastu eta zergak errentariaren kontura izango dira.

#### 17.- LEHIATZEKO GAITASUNA

Esleipen prozesuan parte har ahal izango dute jarduteko gaitasuna izanik azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean aurreikusitako ezintasun eta bateraezintasun inolako kasutan ez egon eta honako baldintzak betetzen dituzten pertsona naturalek:

- Adinez nagusia edo emantzipatua izatea.
- Eskoriatzako udalean erroldatuta egotea, gutxienez, 2014ko abenduaren 31a baino lehen.
- Etxebizitza eskatzaileen Eusko Jaurlaritzako erregistroan izena emanda egotea etxebizitza erosteko edo alokatzeko eskatzaile bezala.
- Etxebizitza beharra egiaztatuta edukitzea eskatzailea honako egoeran egoteagatik: Bizikidetzaren unitateko kide batek ere Euskal Autonomia Erkidegoan jabetzan etxebizitzarik ez edukitzea, ez jabetza soilik, ez lurrazal-eskubiderik edo usufrukturik. Baldintza hori ez dute bete beharrik izango 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 9. artikuluan jasotako salbuespenetakoren batean daudenak. Agindu hori etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa da, eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak eman zuen 2012ko urriaren 15ean.
- Urteko diru sarrera haztatutak 3.000 eta 25.000 euro artekoak direla kreditatzea.

Diru-sarrera konputagarrien jasotzaile gisa bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsona guztiak hartuko dira kontuan.

Diru sarrerak martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan zehaztutako irizpideen arabera kalkulatu eta haztatuko dira. Dekretu hori babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitza eta lurzoru arloko finantza neurriei buruzkoa da.

## 18.- ESLEIPEN PROZEDURA

### 18.1.- BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN AGIRA ETA PROPOSAMENA AURKEZTEKO IRAGARKIA ALDI BEREAN JARTZEA JENDAURREAN.

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege lege-dekretuaren 122 artikuluko 2. paragrafoarekin bat etorriz, Baldintza Administrazio Partikularren Plegua eta proposamenak aurkezteko iragarkia, batera egingo dira, eta erreklamazioak aurkez daitezke iragarkia argitaratu eta hurrengo 8 lanegunetan.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu aurretik baldintza agiriaren aurkako erreklamazioen bat aurkezten bada, lehiaketa bertan behera geratuko da eta baita proposamenak aurkezteko epea ere; eta berriro hasiko da falta den epea, erreklamazio haiek erabaki eta hurrengo egunean kontaktzen hasita.

### 18.2.- ESKAERAK: AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA, BETEBEHARRAK ETA DOKUMENTAZIOA

Eskaria egiteak berarekin dakar baldintza agiria onartzea, eta baita aukeratutako datu guztiak zuzenak direla dioen adierazpen arduratsua egitea ere.

LEKUA ETA EPEA: Eskariak Udaletxeko Erregistro Orokorrean entregatuko dira, goizeko 9:00retatik 14:30era, lanegunetan, asteleheneetik ostiralera, uztailaren 2rarte.

BETEBEHARRAK: FORMALIDADES: Eskariekin batera joan behar dute 17. artikulua ezartzen dituen betebeharrak betetzen dituela kreditatzen duten dokumentuak, eta baita hauek ere:

- a) Ereduaren arabera idatzitako eskaria.
- b) NAN
- c) Bergarako Jabetza Erregistroko ziurtagiria, eskaria egiteko orduan jabetzan etxebizitzarik ez daukala ziurtatzeko.
- d) Bizikidetasun-ziurtagiria.
- e) Diru sarrerak egiaztatze dokumentuak. 2014ko ekitaldiko errenta aitortpenaren kopia
- f) Etxebizitza eskatzaileen Eusko Jauriaritzako erregistroan izena emanda egotearen justifikantea, noiz eman zuen izena adierazita.
- g) Egoki irizitako beste edozein agiri.
- h) Eskatzailea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Testu Bategineko 60. artikuluan jasotako kasuetan ez dagoela dioen zinpeko aitortpena.

### 18.3.- ESLEITZEKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK

Eskariak aurkezteko epea igarota, Alkate erabakiz erabakiko da baldintza agiri honetako baldintzak betetzeagatik etxebizitza erabiltzeko esleipenerako onartutako interesdunen zerrenda eta esleipenetik baztertutakoena, bazterketaren arrazoiarekin.

Zerrenda hori Udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da.

Behin behineko zerrenda behin betiko onartuko da automatikoki, baldin eta 10 laneguneko epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 71. artikulua dioenarekin bat etorriz. Erreklamazioen bat aurkezten bada, beste erabaki baten bidez onartu edo baztertuko da behin betiko zerrenda, eta berriro argitaratuko da.



Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren babesean, onartutako eskaeren artean pertsonak edo bizikidetzak-unitateek ondorengo baremoaren arabera lortutako puntuazio hurrenkerari jarraituz egingo da esleipena:

«a) Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko inskripzioaren antzintasuna: 5 puntu emango dira antzintasunik handiena duen bizikidetzak-unitateko kidearen inskripzio-urte bakoitzeko. Gehienez 40 puntu 8 urte edo gehiagoko antzintasuna duten eskaerentzat, eta gutxienez 5 gutxienez urtebete eta gehienez bi urteko antzintasuna duten eskaerentzat.

b) Bizikidetzak-unitateko kide kopurua: Bizikidetzak-unitateko kide bakoitzeko 5 puntu emango dira; horretarako, hauek baino ez dira kontuan hartuko: titularrak, horien seme-alabak eta etxean erroldatuta dauden edo bisita-araubidea judizialki onartuta duten horien legezko tutoretzapeko edo familia-harrerapeko pertsonak. Gehienez 30 puntu 6 kide baino gehiagoko eskaerentzat eta gutxienez 5 puntu kide bakarreko eskaerentzat.

c) Diru-sarrerak: Gehienez 20 puntu emango zaizkie 3.000 eta 9.000 euro bitarteko diru-sarrerak dituzten eskatzaileei, 15 puntu 9.001 eta 15.000 euro bitartekoak dituztenei, 10 puntu 15.001 eta 25.000 euro bitartekoei eta gutxienez 5 puntu 25.001 eta 30.000 euro bitartekoei.

e) Etxebizitza-premia berezia: 10 puntu emango zaizkio etxebizitza-premia bereziko kolektiboren bateko titularraren bat duten espedientei. Adimen- eta garapen-desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonen dagokienez, 10 puntu emango zaizkie hori egiazta dezakeen bizikidetzak-unitateko kideren bat duten espedientei. Kolektibo bateko kide direnei 10 puntu emango zaizkie horietako bakoitzeko, gehienez 30.»

2.- Eskaerak Etxebizitza Eskatzaile Erregistroan sartzeko dataren bidez hautsiko dira berdinketak.

Esleipendun izan ez diren eskatzaileekin itxaron zerrenda bat egingo da lehentasun hurrenkeraren arabera, etxebizitza hartzeko aukera izan dezaten etxebizitza hutsik geldituz gero.

#### 18.4.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia hauek osatuko dute:

- Mahaiburua: Gizarte zerbitzuetako batzordeburua
- Mahaikideak: Udaleko gizarte langilea.  
Gizarte zerbitzuetako batzorde informatiboaren 2 zinegotzi
- Idazkaria: Udalbatzarrekoa edo berak izendatutako funtzionarioa.

#### 18.5.- ESLEIPEN PROPOSAMENA

Baremoa aplikatu ondoren, aurkeztutako eskaerak sailkatuko ditu Mahaiak beheranzko ordenan, eta kontratua esleitzeko proposamena egingo dio Alkateari.

#### 18.6.- ESLEIPENA

Esleipena Alkate erabakiz egingo da. Erabaki honek ez du titulutzat balio eskubidearen titulartasuna kreditatzeko.

Esleipena egin eta jakinarazita, esleipendunak 15 eguneko epean ordaindu beharko du, erabakiaren berri jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, lehen hilabeteko errenta eta bermea.

Aurreko paragrafoan esandako kontzeptuetakoren bat ordaindu gabe 15 eguneko epea pasatuta, horretarako inolako arrazoirik eman gabe, Alkatearen Erabakiz zerrendan dagoen hurrengo eskatzaileari esleituko zaio errentamendua.

Ez ordaintzeko arrazoiren bat ematen bada, Alkate jaunak erabaki dezake, luzapena eman edo zerrendan zain dagoenari errentamendua esleitu. Luzapenak ezin du 15 egun baino gehiagokoa izan.

#### 18.7. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Errentamendu kontratua 60 eguneko epean formalizatu beharko da dokumentu pribatuan, esleipen erabakia hartu eta hurrengo egunean kontaktzen hasita.

ERANSKINA

Izen-abizenak: .....

NAN: .....

Jakinarazpenetarako helbidea: .....

Adinez nagusi naizen honek herri honetako ..... helbidean etxebizitza bat lehiaketa bidez errentan emateko espedientearen berri izan dut Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (zenbakia: ..... , eguna:.....) eta kontratzailearen profilean jarritako iragarkien bidez, eta adierazten dut, batetik, kontratuaren oinarri den baldintza agiria ezagutu eta osorik onartzen dudala, eta, bestetik, lehiaketan parte hartzen dudala.

.....n, 2015ko .....aren, .....n

Lehiatzailearen sinadura

Sin.: \_\_\_\_\_

## **2. ERANSKINA**

### ZINPEKO AITORPENA

Nik.....andreak, .....NAN zenbakidunak, adinez nagusia eta Eskoriatzan bizi naizenak honako hau ziurtatzen dut:

Sektore publikoko kontratuei buruzko testu bategineko 60. artikuluan jasotako kasuetako batean ere ez nagoela.

Gainera, berariaz baimena ematen diot erakunde eskudundunek kontratu hau kudeatzen duen administrazio publikoari berak edo, hala badagokio, ordezkaturako pertsonak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzeko informazioa eman diezaioten.

Sinadura:

Eskoriatzan, 2016eko.....an,

**PLIEGO DE CONDICIONES JURIDICAS Y ECONOMICAS QUE RIGEN LA ADJUDICACION EN ARRENDAMIENTO DE LA VIVIENDA SOCIAL MUNICIPAL SITA EN INTXAURTXUETA Nº 26-2º DERECHA**

**1º.- OBJETO:**

Constituye el objeto del presente pliego la regulación de las condiciones que han de regir el procedimiento para la adjudicación en arrendamiento de la vivienda municipal cuya descripción es la que sigue:

VIVIENDA DERECHA DE LA PLANTA SEGUNDA , DEL PORTAL SEÑALADO CON EL NUMERO 26 de INTXAURTXUETA AUZOA DEL TERMINO MUNICIPAL DE ESKORIATZA

Ocupa una superficie útil aproximada de 79,90 m2

Se le asignan los siguientes ANEJOS INSEPARABLES:

B) El GARAJE señalado con el NUMERO : 15

B) El TRASTERO señalado con el NÚMERO: 11

**2º.-NORMAS REGULADORAS:**

La preparación y adjudicación:

- a) Por las cláusulas contenidas en este pliego.
- b) Por el Reglamento de Bienes de las Corporaciones Locales.
- c) Por la normativa reguladora de la contratación administrativa.
- d) Por la normativa reguladora de las viviendas sociales ó de régimen especial :

Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, y demás disposiciones que lo desarrollen.

El contrato:

- a) Por las cláusulas contenidas en este pliego
- b) La vigente Ley de Arrendamientos Urbanos.
- c) Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, y demás disposiciones que lo desarrollen.

En lo no especialmente pactado en este Contrato de Arrendamiento será de aplicación la legislación estatal y autonómica sobre Viviendas de Protección Oficial, la Ley 29/1994, de 24 de Noviembre, de Arrendamientos Urbanos, y la legislación Común en cuanto supletorias de la especial de Viviendas de Protección Oficial.

**3º.-NATURALEZA JURIDICA:**

EL contrato de arrendamiento que se adjudique tendrá la consideración de contrato privado.

#### 4º.- DURACION DEL CONTRATO .

El Contrato tendrá una duración de UN (1) AÑO. Llegada la fecha de vencimiento del plazo de duración pactado y de conformidad con lo dispuesto en el Artículo 9 de la Ley 29/1994, de 24 de Noviembre, de Arrendamientos Urbanos, (modificado por la Ley 4/2013, de 4 de junio) el contrato se prorrogará por plazos anuales hasta que el arrendamiento alcance una duración de TRES (3) AÑOS, salvo que el inquilino manifieste al arrendador, con treinta días de antelación como mínimo a la fecha de terminación del contrato o de cualquiera de las prórrogas, su voluntad de no renovarlo.

#### 5º.- DESISTIMIENTO

El inquilino podrá desistir del Contrato, en cualquier momento de su vigencia, siempre que dé el correspondiente preaviso al arrendador con una antelación mínima de dos meses.

#### 6º.- PRECIO DEL CONTRATO

El precio del contrato queda establecido de la siguiente forma:

Renta máxima mensual: 30% de los ingresos mensuales del inquilino que serán ponderados según los siguientes criterios:

La ponderación de los ingresos se realizará conforme a los siguientes criterios:

a) Elementos a ponderar.

– Base imponible de la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, corregida de acuerdo con lo señalado en el artículo 21 del Decreto 39/2008 del 4 de marzo.

– Número de miembros de la unidad de convivencia que hayan de fijar su residencia en la vivienda.

Quedarán excluidos la convivencia por razones de amistad o conveniencia.

– Número de miembros de la unidad de convivencia que generen los ingresos aportando, al menos, el 20% de los mismos.

b) La ponderación de los ingresos, a que se refiere el punto anterior se efectuará de acuerdo con la siguiente fórmula:

$IP=BI \times N \times A$ , siendo:

